**Idazkaritza-Kontuhartzailetza**

**2023/02/28an EGINDAKO OHIKO UDALBATZA.**

**SESIÓN ORDINARIA DEL PLENO DE LA CORPORACIÓN. Día 28/02/2023 .**

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Jose Ramon Zubizarreta Alegria

Zinegotziak

Josu Ezkurdia Santamaría
Maite Uribe Beristain
Maria Purificación Regidor Varela
Antonio Regaño Sájeras
Ana Belén de Castro Ramos
Nestor Arana Arexolaleiba
Dorleta Sologaistoa Aguiriano
Xabier Uriarte Iñurrategi
Leire San Vicente Carrillo

Idazkaria

EDURNE ITURBE LASKURAIN

Eskoriatzan, 2023ko otsailaren 28ko arratsaldeko 18:00etan, Osoko Bilkura aretoan, Jose Ramon Zubizarreta Alegria alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Ohiko Udalbatza, gai zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ez da etorri Eluska Irazu Henández.

En Eskoriatza, siendo las 18:00 horas del día 28 de febrero de 2023 , en el Salón de Plenos de la Casa Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión Ordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde-Presidente Jose Ramon Zubizarreta Alegria, con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asiste Eluska Irazu Henández.

## 1.- AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONARTZEA.

Ondorengo egunetan egindako osoko bilkuretako aktak onartu dira: 2023/01/24 eta 2023/02/08.

## 2.- ALKATEAREN JAKINARAZPENAK.

2023ko otsailaren 22ra arte Alkateak hartutako erabakien berri eman da.

## 3.- ORDAINSARIEN 2023rako IGOERA ONARTZEA.

2023. urterako Estatuaren Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legearen 19. artikuluan jasotako aurreikuspenaren babesean, eta Pertsonal eta Ogasun batzordeak egindako proposamenarekin bat etorriz, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

**LEHENENGOA.-** 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin onartzea langileen ordainsarien % 2,5eko igoera 2022ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariekiko.

**BIGARRENA.-** Lanpostuen zerrenda erabaki honen ondorioz ateratzen diren zenbatekoei egokitzea.

**HIRUGARRENA.-** Igoera horiek 2023ko martxoko nominan ordaintzea.

## 4.- UDAL HONEN BETEBEHARRAK ORDAINTZEKO AURREIKUSITAKO EPEAK BETETZEARI BURUZKO HIRUHILEKO TXOSTENA (merkataritza eragiketetan berandutzaren aurka borroka egiteko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldarazten duen uztailaren 5eko 15/2010 Legearen 4. artikulua).

Merkataritza-eragiketetan sortzen den berankortasunari aurre egiteko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldatzen duen uztailaren 5eko 15/2010 Legeko 4. eta 5. artikuluetan ezarritakoa betez, Udalak obligazioak ordaintzeko hartutako epeak 2022ko laugarren hiruhilekoan betetzeari buruz diruzaintzak egindako txostenaren berri eman zaio Udalbatzarrari.

Udalbatzarrak, legez osatzen duten 11 zinegotzitik 10 bertan direlarik, jasotzat jo du informazio hori.

## 5.- ONARTUTAKO ESKUBIDEEN BAJA ONARTZEA.

Preskribatuta egoteagatik, kreditu kobraezin deklaratuta egoteagatik, bidezkoak ez izateagatik, bikoiztuta egoteagatik edo beste arrazoiren batzuengatik aurreko ekitaldietatik kobratu gabe gelditu ziren eskubideen baja onartzeko Diru Bilketa Zerbitzuak tramitatutako espedientearen berri eman da.

Ogasun eta Pertsonal batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**LEHENENGOA.-** Kobratzeko dauden eskubideei baja emateko talde espedientea onartzea ondorengo taulan agertzen diren kontzeptuengatik, bertan agertzen diren subjektu pasiboei eta bertan jasotako diru kopuruengatik:

Hiri-Lurren Balio Igoeraren gaineko Zergaren kitapenak oker eginda.

| SUBJEKTU PASIBOA | KITAPENA | ZENBATEKOA |
|---|---|---|
| PALACIOS BARBERO GARAINE | 2022 81 20 | 976,28 € |
| PALACIOS BARBERO JOSEBA | 2022 81 21 | 167,39 € |

**BIGARRENA.-** Erabaki honen berri ematea kontuhartzailetza eta diruzaintza udal zerbitzu ekonomikoei beste arrazoiren batzuengatik preskribatutzat edo baliogabetutzat deklaratutako zorrei baja eman diezaieten kontabilitate eta diru-bilketa kontuetan.

## 6.- E-GOITEK SL-REN FAKTURA ORDAINTZEA (2023ko urtarrileko kirol zerbitzuak).

E-Goitek SLk faktura bat aurkeztu du, 2023ko otsailaren 7koa (3. faktura), 2023ko urtarrilean emandako zenbait kirol-zerbitzuri buruzkoa.

Idazkari-kontuhartzaileak, 2023ko urtarrilaren 9an, legezkotasun eragozpena jarri dio espediente horri, horretarako kontraturik ez dagoelako.

Udal zerbitzu teknikoek faktura horiek ordaintzearen aldeko txostena egin dute, alegatuz zerbitzua egoki eta merkatuko ohiko prezioetan eman dela.

Kontuan hartuta faktura hori ordaindu ezean fede onez ari diren hirugarrenak kaltetuko liratekeela (kasu honetan, E-GOITEK SL) eta administrazio honek bidegabeko irabaziak izango lituzkeela, Udalbatzarrak, bertaratutako zinegotzi guztiek alde bozkatuta, honako hau ERABAKI DU:

- E-GOITEK SLk aurkeztutako 3. faktura, 2023ko otsailaren 7koa, ORDAINTZEKO AGINTZEA. Faktura hori 2023ko urtarrilean emandako zenbait kirol-zerbitzuri buruzkoa.

## 7.- E-GOITEK S.L.-K JARRITAKO FIDANTZA ITZULTZEA.

E-GOITEK S.L. enpresak fidantza eskudirutan jarri zuen 2020ko azaroaren 17an. Fidantza hori Udalbatzarrak, 2020ko azaroaren 24an hartutako erabakiz, hainbat kirol zerbitzu emateko esleitutako kontratutik sortutako betebeharrak zuzen beteko zuen berme gisa jarri zen.

Kontratuaren indarraldia amaituta, jarritako fidantza itzultzeko eskatu du E-GOITEK enpresak.

Zerbitzu teknikoek egindako txostena ikusita, eta Kultura eta Kirolak batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** E-GOITEK S.L. enpresari berme bezala jarritako 10.820,69 euro ITZULTZEA. Diru hori udal kirol instalazioetan hainbat kirol zerbitzu emateko Udalbatzarrak 2020ko azaroaren 24an esleitutako kontratutik sortutako betebeharrak beteko zirela berme bezala jarri zen.

## 8.- 2023ko MARTXOAREN 8A DELA-ETA ESKORIATZAKO EH BILDUK AURKEZTUTAKO MOZIOA.

Hitza eman ondoren, Nestor Aranak osorik irakurri du mozioaren testua. Hona hemen mozioaren transkripzioa:

***Mozio-proposamena***

*Zaintzen krisi batean murgilduta gaudela dioten ahotsak aspalditik datoz, eta toki ezberdinetatik. Esan dugu behin baina gehiagotan, pandemiak agerian utzi duela feminismoa aspaldi aldarrikatzen ari zena: bizitza zaurgarria eta dependientea da. Bizitzari baldintza duin eta justuetan eusteko apustua egiteko unea da: horrek begirada feminista eskatzen du erakundeetatik bultzatzen ditugun politika guztietan. Krisiaren azaleratzeak batzuengan eragiten duen paralisiaren aldean, mugimendu feministaren deiarekin bat egiten dugu. Diskurtso hutsaletatik, elkarlanerako eta sistema publikoaren defentsarako bideak ezarri eta eraikitzeko garaia da.*

*Zaintzaren merkantilizazio eta familiarizazioa da sustatzen den eredua, eta honek etxeko eta zaintza sektoreko langileen esplotazioa dakar. Sektorea desarautua batzuen kasuan, eta konbenio ezberdinetakoa besteen artean.*

*Egoitzetako zein etxez etxeko langileak, gehienak emakumeak, lan baldintza duinen aldeko borrokari heldu behar izan diote etengabe haien egoera hobetzen saiatzeko, ez baita etorri instituzioen partetik, pandemia ostean ere ez, berau erregulatzeko eta duintzeko inolako urratsik. Feminizatutako eta prekarizatutako sektore honek, zaintzen krisiaren erresoluzio sexistaren beste albo kaltea dira, askoren ahotan dagoen soldata arrakalaren eragile nagusietakoa.*

*Krisi egoera honi egoki erantzungo dioten erantzun integralak premiazkoak dira, esparru eta maila guztietan, eta ezinbestekoa da, eremu hau ere horretara aktibatu eta soluzio berriak mahai-gaineratzen hastea. Errealitate gordin horren aurrean, gure herriak, dinamika eraldatzaile eta partekatu bat abiatu behar du, erakundeetatik ahalegin eta konpromiso hori aitortuz, proposamenak eta aldarrikapenak jasoz, eta topaketa- eta elkarrizketa-guneak bultzatu eta indartuz.*

*Horregatik guztiagatik, Eskoriatzako Udalak honako hau erabaki du:*

- *Zaintza mahai bat martxan jartzea. Zaintza sistemari buruzko analisia egin eta honen konpromiso kolektiboari heltzeko estrategia publiko-komunitarioak diseinatzeko eta abian jartzeko elkarrizketarako erabakigune bat. Parte hartu beharko dute, besteren artean: udal teknikari eta kargu publikoek, eragile sindikalek, sozialek, mugimendu feministak eta bestelako herri-mugimenduek ere.*

- *Etxez etxeko laguntza-zerbitzuaren eredua eta funtzionamendua egokitzea/berrantolatzea eta/edo zabaltzea, identifikatutako beharrei erantzuteko eta lan-baldintzak duintzeko asmoz.*

- *Gure udalerriko etxeko langileen egoera identifikatzea eta aztertzea (zerbitzu sozialen eta tokiko kolektiboen bidez), eta haien lan- eta bizi-baldintzak hobetzeko programa integralak abian jartzea, besteak beste: kontzientziazio kanpainak, etxebizitzarako eta langileen erroldarako eskubidea bermatzeko ekimenak, aholku zerbitzuak martxan jartzea, etab.*

- *Zaintza-lanen balio sozial eta politikoa aitortzen duten komunikazio-kanpainak egitea, erantzunkidetasunari arreta berezia eskainiz eta etxeko langileenak bezalako errealitateak ikusaraziz.*

- *Euskal Herriko Mugimendu Feministak abiatu duen dinamikarekin bat egitea, hasteko eta behin, Martxoaren 8ko deialdiak babestuz eta herritarrei bertaratzeko deia eginez. Hortik aurrera landuko den prozesuan eragile aktibo bezala parte hartzeko eta ardurak hartzeko konpromisoa adierazten dugu.*

Eztabaidatu ondoren bozketa egin da, eta aurkako 6 botorekin (EAJ/PNVren 6 zinegotziek eta EEEren zinegotziak) eta bertaratutako EH BILDUren 3 zinegotziek alde bozkatuta, ez da onartu mozioa.

ESANDAKOAK:

- Josu Ezkurdia: gure taldeak EH BILDUk aurkeztutako mozioaren aurka bozkatuko du, eta ez mozioaren edukiaren aurka gaudelako, baizik eta, beste behin ere EH BILDUk beste erakunde edo gizarte-eragile batzuk baino azkarragoa dela uste duelako. Guk EUDELek proposatutako mozioa defendatzen dugu, Euskadi osoko ordezkariek egindako mozioa delako, gogoratu behar da EUDELen Euskadiko talde politiko guztiek parte hartzen dutela eta ahalegin handia egiten dutela adierazpen bat aho batez adosteko. Guk eskertzen dugu EUDELek egiten duen ahalegina, eta ez zaigu zentzuzkoa iruditzen, adostasun hori egonda, herri bakoitzean gauza desberdinak proposatu eta onartzea.

- Alkatea. nik, alkate naizen aldetik, zehaztapen batzuk egin nahi nituzke. Lehenik eta behin, esan behar dut 2018ko apirilean bilera bat izan genuela etxez etxeko laguntza-zerbitzuko langileekin eta haien ordezkari sindikalekin. Batez ere, EH BILDUk lizitatutako kontratuan finkatutako baldintzak hobetzeko egon ginen, baldintza horiek beren aldarrikapenetara egokitzeko. Horrekin esan nahi dut 2018an deitu zen lizitazioak barne hartzen zituela langileekin eta haien ordezkari sindikalekin adostutako baldintzak. Egoerari dagokionez, argi dago gaur egun zerbitzuak gorabehera asko dituela. Orain baino eskari handiagoa egon da. Gaur egun, Aldundiarekin formalizatuta dugun hitzarmen baten arabera, zerbitzuaren erabiltzaileak bere diru-sarreren arabera ordaintzen duen gehieneko zenbatekoa orduko 15 eurokoa da, eta, arloko teknikariek jakinarazi dutenez, bere beharren arabera adostutako zerbitzu bat eskaintzen zaio.

- Dorleta Sologaistoa: ez dut zalantzarik zerbitzua oso ona dela, baina zaintzaile talde batek udal-zerbitzu horretatik kanpo ematen ditu zerbitzuak, eta talde horretan uste dut lan-baldintzak ez direla guztiz egokiak. Uste dut interesgarria litzatekeela jakitea zein den Udalak duen kontratutik

kanpo “zaintza”-zerbitzua ematen duen emakume-talde horren lan-egoera, eta hori guztia jakinda Udalaren baldintzak, beti gertatzen den bezala, agian hobetu daitezkeela.

- Alkateak jakinarazi dio gizarte zerbitzuak informazioa biltzen ari direla Eskoriatzako 80 urtetik gorako guztiak duten egoerari eta eskatzen ari diren zerbitzuei buruz.

## 9.- 2023ko MARTXOAREN 8A DELA-ETA EUDELEK ESKATUTA ESKORIATZAKO EAJ/PNV-K AURKEZTUTAKO MOZIOA.

Bertaratu guztiek mozioaren testua ezagutzen dutenez, bototara jarri da.

***2023ko martxoaren 8rako EUDELen Adierazpena***

*25 urte baino gehiago igaro dira, Beijineko Adierazpenean eta Ekintza Plataforman, erabakiak hartzerako orduan, gizonen eta emakumeen artean parte-hartze politikoa eta boterearen banaketa orekatua lortzeko nazioarteko akordioa hartu zenetik. Nahiz eta aurrerakuntzak izan diren, munduko herrialde gehienek ez dute genero berdintasunik lortu, eta gutxi batzuk bakarrik ezarri edo bete dituzte sexuen arteko berdintasunean asmo handiko helburuak.*

*Egungo krisi anitzen testuinguru honetan, gizarte, ekonomia, ingurumen eta gobernantza ereduak birplanteatu nahi dira, berdintasun-arrakalak gutxitzeko asmoarekin, arrakala horiek gizartearen zati handi batentzat handitu direlako eta, batez ere, emakumeentzat. Orain da liderrak izateko garaia, erakundeak eta gizartea eraldatzeko harreman-eredu askoz ere inklusiboagoak, kooperatiboagoak eta sortzaileagoak lortzeko. Sektore anitzeko lankidetzako gobernantza feministaren eredu baterantz aurrera egin behar da, elkar entzutean oinarrituz, baita botere eta erantzukizunen banaketa eta partaidetza-prozesuak abian jartzean ere.*

*Mugimendu eta talde feministak eta emakumeenak, aniztasunean eta belaunaldien artean, berdintasunaren inguruko hainbat gai salatzeko eta eskatzeko mobilizatzen ari dira. Adibidez, arrazakeriaren kontrako justiziatik hasi eta soldata-berdintasuneraino, indarkeriaren amaiera eta emakumeen aurkako diskriminazioa, sexu-jazarpenaren ezabatzea, klimaren aldeko justizia, bakea mantentzea, eta hainbat gehiago.*

*Emakumeek politikan eta erabakiak hartzerakoan berdintasunean parte hartzea eta lidergoa izatea funtsezkoak dira, 2030an, Garapen Jasangarriaren Helburuak lortzeko. Hala ere, tokiko eremutik orokorrera, emakumeen parte-hartzea mugatua izaten jarraitzen du, alderdi formaletako erabakiak hartzerakoan, besteak beste, politika gaietan, administrazio publikoan, enpresa pribatuetan, unibertsitatean, sindikatuetan, elkarte eta kooperatibetan, eta beste hainbat sektoretan.*

*Martxoaren 8 honetan, emakumeen nazioarteko egunean, lehentasunezkoa da emakumeen lidergoak sustatzea, gobernantza feministaren eta lidergo partekatuaren eredu batetik abiatuta. Era berean, berdintasun arloan erabakiak hartzean, emakumeen parte-hartzea areagotzeko baldintzak sortzearen alde lan egin behar da. Emakumeen parte-hartzea ikuspegi askoz ere zabalago batetik ulertu behar da, ez bakarrik ikuspegi formal edo arauemailetik. Emakumeek erabakiguneetan parte hartzeko dituzten baldintzak aldatu behar ditugu.*

*Emakumeen parte-hartzearen alde lan egiteko, beharrezko da…*

- *botere-espazioak partekatzea eta uzteak eragozten dituzten* ***erresistentziei eta inertziei aurre***

***egitea**. Horretarako, kristalezko sabaiak hautsi behar dira, espazio guztietan, aniztasun osoan eta ikuspegi intersekzionalarekin emakumeen presentzia bermatuko duten neurriak ezarriz.*

-  ***zaintza-lanen banaketa erantzunkidea**n aurrera guztiz egitea, justizia-printzipioa delako eta emakumeen gainkargak herritartasun osoa egikaritzea mugatzen duelako.*
-  ***zaintza eta bestelako lan feminizatuen sektore profesionala** prekarizatuak balioestea, eta sektore horri gizarte-balioa aitortzea, bere baldintzak hobetuz.*
-  *emakumeek lidergoetan duten konfiantza, sinesgarritasuna eta eragina mugatzen duten **estereotipo eta aurreiritziei aurre egitea**.*
-  ***emakumeen aurkako indarkeria**-mota guztiak desagerraraztea, baita emakumeen aurkako indarkeria politikoa ere.*
-  ***lidergoan jarduteko praktikak eta moduak deseraikitzea**, besteak beste, menderatzean oinarritutako eredu androzentrikoak, zaintzaren denborak eta erantzukizuna kontuan hartu gabe, emakumeen eta boteretik baztertutako beste kolektibo batzuen talentua eta jakintzak mesprezatuz, eta talde-lana ez baloratuz.*
-  ***emakumeen eta nesken eskubideak** ikuspegi intersekzionala, berritua, erradikala eta eraldatzailea duen agenda feministaren erdigunean jartzea, emakume horiek boterean duten bazterketa sistematikoari aurre egiteko eta desberdintasun-arrakalak murrizteko.*

*Horregatik, euskal udalerriok, gure eskumenen markoan, **konpromisoa hauek hartzen ditugu**: emakumeen lidergoa bultzatzea eta boterea berdintasunean egikaritzeko baldintzak erraztea. Estamentu publiko eta probatu guztietan emakumeen ahalduntzea eta parte-hartzea sustatzen duten politikak indartzea da helburua, martxoaren 3ko 1/2022 Legean, Emakume eta Gizonen berdintasunerako legearen bigarren aldaketari buruzkoan, ezarritakoaren arabera:*

1. *Emakumeen Etxeak sortzeko prozesu parte-hartzaileekin hastea, udalerri bakoitzaren beharretara egokituta.*
2. *Ahalduntze programak eta eskolak baliabide eta leku egokiez hornitzea*
3. *Mugimendu feministaren eta emakume-elkarteen parte-hartzea indartzea, emakumeen/berdintasunaren tokiko kontseiluetan, erabaki partekatuak hartzeko konpromiso sendo batetik abiatuta.*
4. *Berdintasun-planen intersekzionalitatea indartzea gure gizartea osatzen duten eremu guztietan, emakumeek beraien aniztasunean duten parte-hartze osoa eta eraginkorra finkatzera iristeko.*
5. *Adinaren eta generoaren arabera bereizitako datuak sortzea, 1/2022 Legearen aginduak dakarrena kontuan hartuz, neskatilen, neska nerabeen eta emakumeen bizitzetan eragin zuzena izango duten politikak egiteko informazioa emateko*

6. *Politikan sartzen diren emakumeentzako ikaskuntza- eta ahalduntze-guneak antolatzea, emakume hautetsien arteko laguntza-, elkartasun- eta aliantza-sareen bidez, adibidez, Basqueskola Sarea, edo beste sare batzuk*

7. *EUDELeri eskatzea, indarkeria politikoari aurre egiteko protokoloak proposa ditzala, emakumeen partea hartzeari eta erabakitzeko gaitasunari buruzko ikerketa bultza dezala eta ordezkaritza orekatu baterantz egiten diren aurrerapenak babes ditzala.*

EAJ/PNVren 6 zinegotziek eta EEEren zinegotziak alde bozkatuta, eta EH BILDUren 3 zinegotziak abstenituta, mozioa onartu da.

## <u>10.- GALDE-ESKEAK.</u>

Ez da egon.

**Eta beste gairik ez dagoenez, 18:25ean amaitutzat ematen da bilera, eta bertan gertatutakoa, nik, Idazkariak, egiaztatzen dut.**

ESKORIATZAKO UDALA
alkatetza
JOSE RAMON ZUBIZARRETA ALEGRIA
2023/04/0412:28:06

ESKORIATZAKO UDALA
idazkaritza
kontuhartzailetza
MIREN EDURNE ITURBE LASCURAIN
2023/03/2910:13:58

## 1.- APROBACIÓN DE ACTAS DE SESIONES ANTERIORES.

Por encontrarlas conformes son aprobadas las actas de las sesiones celebradas el 24/01/2023 y 8/02/2023.

## 2.- COMUNICACIONES DE ALCALDÍA.

Se da cuenta de las resoluciones dictadas hasta el día 22 de febrero de 2023.

## 3.- APROBACIÓN DE INCREMENTO RETRIBUTIVO PARA 2023

De conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Personal y Hacienda y al amparo de la previsión contemplada en el art. 19 de la Ley 31/2022, de 23 de diciembre, de Presupuestos Generales del Estado para el año 2023, el Pleno, por unanimidad ACUERDA:

**PRIMERO:** Aprobar el incremento de las retribuciones del personal en un 2,5% respecto a los vigentes a 31 de diciembre de 2022, con efectos desde el 1 de enero de 2023.

**SEGUNDO:** Adecuar la Relación de Puestos de Trabajo a los importes resultantes del presente acuerdo.

**TERCERO:** Hacer efectivos dichos incrementos en la nómina correspondiente al mes de marzo de 2023.

## 4.- INFORME TRIMESTRAL SOBRE EL CUMPLIMIENTO DE LOS PLAZOS PREVISTOS PARA EL PAGO DE LAS OBLIGACIONES DE ESTE AYUNTAMIENTO ( art. 4 de la Ley 15/2010, de 5 de julio, de modificación de la Ley 3/2004, de 29 de noviembre, por la que se establecen medidas de lucha contra la morosidad en las operaciones comerciales.)

En cumplimiento con lo dispuesto en el artículo 4 y 5 de la Ley 15/2010, de 5 de julio, de modificación de la Ley 3/2004, de 29 de diciembre, por la que se establecen medidas de lucha contra la morosidad en las operaciones comerciales, se da cuenta a la Corporación en Pleno del informe trimestral emitido desde tesorería en relación al Ayuntamiento sobre el cumplimiento de los plazos para el cuarto trimestre de 2022.

El Pleno, con la asistencia de 10 de los 11 concejales que legalmente lo componen, da por recibida dicha información.

## 5.- APROBACIÓN DE BAJA DE DERECHOS RECONOCIDOS

Dada cuenta del expediente tramitado por el Servicio de Recaudación para la aprobación de la baja de derechos pendientes de cobro de ejercicios anteriores por prescripción, declaración de créditos incobrables, improcedencia, duplicidad y otras causas.

De conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Personal y Hacienda y el voto favorable de todos los corporativos presentes, el Pleno ACUERDA:

**PRIMERO.-** Aprobar los expedientes colectivos de baja de derechos pendientes de cobro por los conceptos, sujetos pasivos e importes contenidos en las siguientes tablas y que a continuación se relacionan:

Liquidaciones del Impuesto sobre el Incremento del Valor de los Terrenos de Naturaleza Urbana practicadas de forma errónea

| **SUBJEKTU PASIBOA** | **KITAPENA** | **ZENBATEKOA** |
|---|---|---|
| PALACIOS BARBERO GARAINE | 2022 81 20 | 976,28 € |
| PALACIOS BARBERO JOSEBA | 2022 81 21 | 167,39 € |

**SEGUNDO.-** Dar traslado del presente acuerdo a los servicios económicos municipales de Intervención y Tesorería para que se proceda a dar de baja en las cuentas contables y de recaudación las deudas declaradas prescritas o anuladas por otras causas.

## 6.- PAGO DE FACTURA EMITIDA POR E-GOITEK S.L. (servicios deportivos de enero 2023)

E-GOITEK S.L. ha presentado 1 factura de fecha 7 de febrero de 2023 ( (Factura nº 3) , relativa a diversos servicios deportivos prestados durante enero de 2023.

Por la Secretaria- Interventora, con fecha 9 de enero de 2023, se formula reparo de legalidad a dicho expediente basado en la inexistencia de contrato.

Desde los servicios técnicos municipales se informa en el sentido de proceder al abono de dichas facturas alegando que el servicio ha sido prestado satisfactoriamente y a los precios habituales de mercado.

Considerando que el no abonar las mismas implicaría perjudicar a terceros que actúan de buena fe (en este caso E-GOITEK S.L.) y un enriquecimiento injusto para esta administración, es por lo que el Pleno, con el voto favorable de todos los corporativos presentes, ACUERDA:

- ORDENAR EL PAGO de las facturas nº 3, de fecha 7 de febrero de 2023 , emitida por E-GOITEK S.L. y relativa a diversos servicios deportivos prestados durante enero de 2023.

## 7.- DEVOLUCIÓN DE FIANZA DEPOSITADA POR E-GOITEK S.L.

Con fecha 17 de noviembre de 2020 E-GOITEK S.L. depositó fianza en metálico en garantía del correcto cumplimiento de las obligaciones derivadas del contrato de prestación de diversos servicios deportivos, adjudicado por acuerdo plenario de fecha 24 de noviembre de 2020.

Finalizada la vigencia del contrato, por E-GOITEK se solicita se devuelva la fianza depositada

Visto el informe emitido por los servicios técnicos y de conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Cultura y Deportes, el Pleno, por unanimidad, ACUERDA:

**Primero:** DEVOLVER A E-GOITEK S.L. la cantidad de 10.820,69 euros depositados en concepto de garantía del cumplimiento de las obligaciones derivadas del contrato adjudicado por el Pleno el 24 de noviembre de 2020 para la prestación de diversos servicios deportivos en las instalaciones deportivas municipales.

## 8.- MOCIÓN PRESENTADA POR EH BILDU ESKORIATZA CON MOTIVO DEL 8 DE MARZO DE 2023.

Concedida la palabra, Nestor Arana lee íntegramente el texto de la moción que a continuación se transcribe:

***Propuesta de Moción***

*Las voces que dicen que estamos inmersas en una crisis de cuidados vienen de hace tiempo, y de diferentes espacios. Ya hemos dicho en más de una ocasión que la pandemia ha puesto de manifiesto lo que el feminismo venía reivindicando hace tiempo: la vida es vulnerable y dependiente. Es el momento de apostar por mantener la vida en condiciones dignas y justas: eso exige una mirada feminista en todas las políticas que impulsamos desde las instituciones. Frente a la parálisis que provoca en algunos el afloramiento de la crisis, nos sumamos a la llamada del movimiento feminista. Frente a discursos vanos, es hora de establecer y construir cauces de colaboración y defensa del sistema público.*

*El modelo que se promueve es el de mercantilización y familiarización del cuidado, que supone la explotación de las trabajadoras del sector doméstico y de cuidados. Sector desregulado en algunos casos y de diferentes convenios en otros.*

*Tanto las trabajadoras de las residencias como las trabajadoras a domicilio, en su mayoría mujeres, han tenido que luchar constantemente por unas condiciones laborales dignas para intentar mejorar su situación, ya que no ha venido mejora por de parte de las instituciones, ni siquiera después de la pandemia, ningún paso para regularla y dignificarla. Este sector feminizado y precarizado es otro de los*

*daños colaterales de la resolución sexista de la crisis de los cuidados, uno de los principales causantes de la brecha salarial.*

*Urgen respuestas integrales que respondan adecuadamente a esta situación de crisis, en todos los ámbitos y niveles, y es imprescindible activar este sector y empezar a incluir nuevas soluciones. Ante esta cruda realidad, nuestro pueblo debe iniciar una dinámica transformadora y compartida, reconociendo desde las instituciones ese esfuerzo y compromiso, recogiendo propuestas y reivindicaciones, e impulsando y potenciando espacios de encuentro y diálogo.*

*Por todo ello, el Ayuntamiento de Eskoriatza ha decidido:*

- *Poner en marcha de una Mesa de Cuidados. Un espacio de decisión para realizar un análisis sobre el sistema de cuidados mediante el diálogo, el diseño y la puesta en marcha de estrategias público-comunitarias. Deberán participar, entre otros, técnicas y cargos públicos municipales, agentes sindicales, sociales, movimiento feminista y otros movimientos populares.*

- *Adecuar/reorganizar y/o ampliar el modelo y funcionamiento del servicio de ayuda a domicilio con el fin de dar respuesta a las necesidades identificadas y dignificar las condiciones de trabajo.*

- *Identificación y análisis de la situación de las trabajadoras del hogar en nuestro municipio/territorio (a través de servicios sociales y colectivos locales) y puesta en marcha de programas integrales para mejorar sus condiciones laborales y de vida, tales como campañas de concienciación, iniciativas para garantizar el derecho a la vivienda y al censo de trabajadores, puesta en marcha de servicios de asesoramiento, etc.*

- *Realizar campañas de comunicación que reconozcan el valor social y político de las tareas de cuidado, prestando especial atención a la corresponsabilidad y visibilizando realidades como las de las trabajadoras del hogar.*

- *Sumarse a la dinámica emprendida por el Movimiento Feminista de Euskal Herria, en primer lugar, apoyando las convocatorias del 8 de Marzo y haciendo un llamamiento a la ciudadanía para que acuda. A partir de ahí manifestamos nuestro compromiso de participar y asumir responsabilidades como agente activo en el proceso que se va a abordar.*

Previo debate y votación, y con el resultado de 6 votos en contra de los concejales de EAJ/PNV , la abstención de la concejala de EEE y el voto a favor de los 3 concejales presentes de EH BILDU, la moción no es aprobada.

<u>INTERVENCIONES HABIDAS:</u>

- Josu Ezkurdia: Nuestro grupo votará en contra a la moción presentada por EH BILDU, y no porque estemos en contra de su contenido, sino porque, y un vez más EH BILDU se cree más listo que otras entidades o agentes sociales, nosotros defendemos la moción propuesta desde EUDEL porque es una moción elaborada por representantes del ámbito de todo Euskadi, he de recordar que en EUDEL participan todos los grupos políticos de Euskadi y que hacen un gran esfuerzo para consensuar una declaración por unanimidad. Nosotros agradecemos el esfuerzo que se hace desde EUDEL y no nos parece razonable que habiendo ese consenso en cada pueblo se vaya proponiendo y aprobando cosas distintas.

- El Alcalde. Yo, en mi calidad de Alcalde, quisiera hacer unas puntualizaciones. En primer lugar, he de decir que en abril de 2018 tuvimos una reunión con las trabajadores del servicio de ayuda a domicilio y con sus representantes sindicale., Estuvimos principalmente para mejorar las condiciones fijadas en el contrato licitado por EH BILDU, para adecuar esas condiciones a sus reivindicaciones. Con eso quiero decir que la licitación que se convocó en el año 2018 incluía las condiciones consensuadas con las trabajadoras y sus representantes sindicales. En cuanto a la situación, es claro que actualmente el servicio tiene muchos alti-bajos. Ha habido más demanda que ahora. A la fecha, en virtud de un convenio que tenemos formalizado con la Diputación, el importe máximo que paga el usuario del servicio en función de sus ingresos es de 15 euros la hora y se le ofrece, según informan los técnicos del área, un servicio consensuado en función de sus necesidades.

- Dorleta Sologaistoa: No dudo de que el servicio sea muy bueno, pero hay un grupo de cuidadoras que prestan sus servicios al margen de ese servicio municipal y que son el colectivo en el que creo que la condiciones laborales no son del todo idóneas. Creo que sería de interés conocer cual es la situación laboral de ese grupo de mujeres que prestan un servicio de “cuidado” al margen del contrato que tiene el ayuntamiento, y ello siendo consciente también que las condiciones de este último , como ocurre siempre, quizás podrían ser mejoradas.

- El Alcalde le informa que desde servicios sociales se está recabando información sobre la situación y los servicios que están demandando todos los mayores de 80 años de Eskoriatza,

## 9.- MOCIÓN PRESENTADA POR EAJ/PNV ESKORIATZA A INSTANCIA DE EUDEL CON MOTIVO DEL 8 DE MARZO DE 2023.

Por ser conocido el texto de la moción por todos los presentes, se somete la misma a votación.

***Declaración de EUDEL con motivo del 8 de marzo de 2023***

*Han pasado más de 25 años desde que se adoptó el acuerdo internacional de lograr la participación política y distribución equilibrada del poder entre hombres y mujeres en la toma de decisiones en la Declaración y Plataforma de Acción de Beijing. A pesar de los avances, la mayoría de los países del mundo no ha logrado la Igualdad de*

*género, y son pocos los que han establecido o cumplido metas ambiciosas respecto de la paridad entre los sexos.*

*En el contexto actual de crisis múltiples se busca replantear los modelos social, económico, medioambiental y de gobernanza a fin de reducir las brechas de desigualdad, que han aumentado para gran parte de la humanidad y, principalmente, para las mujeres. Es el tiempo de liderar para transformar las organizaciones y la sociedad hacia modelos de relación mucho más inclusivos, cooperativos y creativos. Se necesita avanzar hacia un modelo de gobernanza feminista de colaboración multisectorial; basada tanto en la escucha como en la puesta en marcha de procesos de la participación y distribución de poderes y responsabilidades.*

*Las organizaciones feministas y de mujeres en su diversidad y entre generaciones, vienen movilizándose para denunciar y reclamar una serie de cuestiones de igualdad: desde la justicia racial hasta la igualdad salarial, el fin a la violencia y la discriminación contra las mujeres, la eliminación del acoso sexual, la justicia climática, el mantenimiento de la paz y más.*

*La participación y el liderazgo de las mujeres en la política y en todos los ámbitos de decisión en pie de igualdad son fundamentales para alcanzar los Objetivos de Desarrollo Sostenible en 2030. Sin embargo, desde el ámbito local hasta el global, la participación de las mujeres en la toma de decisiones en las esferas formales sigue siendo limitado, ya sea en la política, la administración pública, empresas privadas, universidad, sindicatos, asociaciones y cooperativas, y otros sectores.*

*Este 8 de marzo, día internacional de las mujeres, es prioritario impulsar los liderazgos de las mujeres desde un modelo de gobernanza feminista y liderazgo compartido. Trabajar por generar las condiciones para aumentar la participación de las mujeres en la toma de decisiones en igualdad. Hay que entender la participación de las mujeres desde una perspectiva mucho más amplia, no solo la formal o normativa, sino que tenemos que cambiar las condiciones en las que las mujeres puedan participar de los espacios de decisión.*

*Para trabajar por la participación de las mujeres es necesario…*

- *combatir las **resistencias e inercias** que impiden compartir y ceder espacios de poder, rompiendo los techos de cristal con medidas que garanticen la presencia de las mujeres en todos los espacios, en toda su diversidad y con perspectiva interseccional;*
- *avanzar radicalmente en una **distribución corresponsable de las tareas de cuidado**, porque es un principio de justicia y porque la sobrecarga de las mujeres limita su ejercicio pleno de la ciudadanía;*
- *poner en valor el **sector profesional de los cuidados** precarizados y otros trabajos feminizados, y reconocer su valor social, mejorando sus condiciones;*
- *combatir los **estereotipos y prejuicios** que limitan la confianza, credibilidad e influencia de las mujeres en el ejercicio de los liderazgos;*
- *erradicar todas las formas de **violencia hacia las mujeres**, incluidas la violencia política contra las mujeres;*
- *deconstruir las **prácticas y formas de ejercicio del liderazgo** desde modelos androcéntricos basados en la dominación; desconsiderando los tiempos y la responsabilidad del cuidado; que desprecian el talento y saberes de las mujeres y otros colectivos excluidos del poder; y sin valorar el trabajo colectivo;*
- *colocar los **derechos de las mujeres y las niñas** en el centro de una agenda feminista con enfoque interseccional, renovada, radical y transformadora, para combatir la sistemática exclusión de estas en el poder y reducir las brechas de desigualdad.*

*Por eso los Ayuntamientos Vascos, en el marco de nuestras competencias, **nos comprometemos** a impulsar el liderazgo de las mujeres y a favorecer las condiciones para el ejercicio del poder en igualdad. Se trata de fortalecer las políticas que promuevan el empoderamiento y participación de las mujeres en todos los estamentos públicos y privados según lo establecido en la Ley 1/2022, de 3 de marzo, de segunda modificación de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres:*

1. *Iniciar procesos participativos para la creación de Casas de Mujeres, adaptados a las necesidades de cada municipio.*

2. *Dotar los programas y las escuelas de empoderamiento de recursos y espacios adecuados.*

3. *Fortalecer la participación del movimiento feminista y las diferentes asociaciones de mujeres en los Consejos Locales de mujeres/igualdad desde un firme compromiso de toma de decisiones compartidas.*

4. *Reforzar la interseccionalidad de los planes de igualdad en todos los ámbitos que conforman nuestra sociedad para llegar a consolidar la participación plena y efectiva de las mujeres en su diversidad.*

5. *Generar datos desagregados por edad y género para aportar información a la elaboración de políticas que tengan un impacto directo en las vidas de las niñas, adolescentes y mujeres según el mandato de la ley 1/2022.*

6. *Articular espacios de aprendizaje y empoderamiento para las mujeres que acceden a la política, mediante redes de apoyo, solidaridad y alianza entre mujeres electas, como Basqueskola Sarea y otras.*

7. *Instar a que EUDEL proponga protocolos para hacer frente a la violencia política, que impulse la investigación sobre la participación de las mujeres y sobre la capacidad de decisión y apoye los avances hacia una representación equilibrada.*

Con el voto a favor de los seis concejales de EAJ/PNV , el voto a favor de la concejala de EEE y la abstención de los tres concejales de EH BILDU, la moción es aprobada.

## 10.- RUEGOS Y PREGUNTAS.

No se producen.

**Y no habiendo más asuntos que tratar, se levanta la sesión a las 18:25 horas del día de la fecha. De todo lo cual como Secretaria doy fe.**